

TOLOSA: GERRA AURREKO IKASTOLA (1922-1936)

BAKARTXO GOIKOETXEA URDAPILLETA
IZARNE DRABASA ARRUE



EUSKAL-IKASTOLAKO OROIPENA--1928

TOLOSA: GERRA AURREKO IKASTOLA (1922-1936)

1. GORRITIKO IKASTOLA

1.1. BIZITZA

1.2. DESKRIPZIOA

1.3. IRAKASLEGOA

1.4. IKASLEGOA

1.5. MATERIALA. ORDUTEGIA ETA ADMINISTRAZIOA

2. MACAPILAC MILITARRA ETA IKASTOLAREN BERRIREKITTZEA (1929-1936)

2.1. GORRITIKO IKASTOLAREN BERRIREKITTZEA

2.2. LASKORAINGO IKASTOLA

3. GERRA AURREKO IKASTOLAREN AMAIERA

Lan hau Tolosako Euskal-Ikastolaren bizia aztertzen saiatu da, 1922ren haseran jaio zenetik 1936ko guduak hil zuen arte. Eta beraz komeni dela-koan gaude, urte haietan ze egoera bizi zen bere inguruan, Tolosan hain zuzen ikustea.

Garai hartan Tolosa herri handi eta aberatsa zen. Papel industri asko zuen eta jende asko zetorren lanera. Merkataritzak ere pisu handia zuen. Urte haietan Tolosan bi talde azaltzen zaizkigula esan dezakegu: karlistak eta euskalzaleak. Udaletxean gehiengoa karlistek zutenez euskalzaleen ekintzei, gehienetan behintzat, uko egiten zieten. Horregatik, ikastola sortu zenean Udaletxeak ez zuen inongo laguntzarik eman, alderantziz, trabak jarri baizik ez zuen egiten. Hala eta guztiz ere Euskal Eskola bat sortzea lortu zuten, hamalau urte irekia egonaz.

Kalean erdal giroa nagusi zela esan daiteke eta giro hau ikusirik, eta ondorioz euskara jasaten ari zen beherakada eta haur euskaldunak irakaskuntzan bere ama hizkuntza baztertuaz erdaraz ikasi beharra zutela konturaturik, Tolosako euskalzale talde bat arazo larri honek irtenbide bat behar zuela konturatu zen: Euskal Eskola. Kontrako giro honetan jaio zen ikastola.

1. GORRITIKO IKASTOLA (1922-1928)

1.1. Bizitza

Tolosako ikastola 1922. urtean Urtarrilaren 9an sortu zen Tolosako Felipe de Gorriti plazan. Euskal Herri mailan Tolosako ikastola izan zen sortu zen lehenengotakoa eta hauek izan ziren sortzailek: Ramón Larrañaga, Doroteo Ziaurriz, J. Antonio Irazusta, Pepe Eizagirre, Periko Laskibar, Isaac López Mendizabal, Jose M^a A.girre “Lizardi”, Antonio M^a Laba-

yen, Luis Sesé, Elosegi, Patrizio Orkaiztegi, e.a. Urrats ugari eman ondoren lekua, andereñoak eta lehendabiziko ikasleak bilatu zituzten.

Eusko Ikaskuntzari laguntza eskatu zitzaion eta honek laguntza eskeini zion diru aldetik ezik.

1.2. Deskripzioa

Gela bakarra zen eta bertan egoten ziren adin guzietako haurrak, bakoitza bere andereñoaren inguruan. Gela oso argitsua eta handia omen zen eta erdi erdian “txokolatera” deitzen zioten egurrezko estufa bat omen zegoen. Estufa hau tela metalikaz inguraturik zegoen haurrak erre ez zitezkeen. Ondoren, inguru guzian aulki borobil bat, haurrak, hotza egiten zueanean, bertan eseritzeko. Batez ere, haur txikienak izaten ziren aulkian eserita egoten zirenak.

1.3. Irakaslegoa

Irakasleak honoko hauek izan ziren: M.^a Dolores Arbilla Mendizabal eta Juanita Goikoetxea.

M.^a Dolores Arbilla izan zen lehenengo andereñoa maistra karrera bukatu berria zuelarik. Nahiz eta Juanita Goikoetxeak berarekin lan egin, bera izaten zen beti buru. M.^a Dolores Arbilla Mendizabal 1897. urtean Apirilaren 9an Tolosan jaio zen eta zazpi senide zituen. Oso gaztea zelarik umezurtz geratu zen eta bere senideekin batera Doroteo Ziaurriz medikua-
ren etxean bizitzen jarri zen.

Urte batzuetan Bilboko etxe batetan institutriz bezala egon zen. Baina Tolosan ikastola ireki behar zutenean M.^a Dolores Arbilla maistra titulua zuenez, Bilbotik etortzeko eskatu zioten ikastolako andereño izan zedin. Gaur egun Hernaniko zaharren etxean dago bere 90 urte inguru gainean dituelarik.

Lehen esan dugun bezala M.^a Dolores Arbilla izan zen lehenengo andereñoa eta hasera batetan bakarrik aritzen zen. Baina urtetik urtera haur gehiago biltzen zirenez, laguntzaile baten beharra zegoela ikusten zuen eta Juanita Goikoetxeari laguntza eskatu zion. Juanita Goikoetxea 1912. urtean Gaztelun jaio zen eta gaur egun Ormaiztegin bizi da.

1.4. Ikaslegoa

Ikastola lehenengo aldiz ireki zenean lau haur bakarrik hasi ziren: Miren eta Imanol Brau anai-arrebak eta Izaskun eta Andoni Larrañaga anai-arrebak hain zuzen ere. Ikastola aurrera jarraitzeko haur gutxi zirela eta urrengo egunetan haur bila ibili ziren haur kopuru handiagoa lortu arte. Eta berehala osatu zuten talde handiago bat: Miren, Elitxu eta Imanol Brau, Izaskun eta Andoni Larrañaga, Elosegitarak, Urkizu, Paskual Sorrarain, e.a.

Haurren adina 3tik 9 bitartekoa zen eta bai neskek eta bai mutilak onartzen ziren garai hartako eskola mixto bakarra izanik.

7-8 urterarte dena euskaraz ikasten zuten eta 8tik 10 urte bitartean erdaraz, batxilerra egiteko prestatu behar bait ziren.

1.5. Materiala, Ordutegia eta Administrazioa

Garai haietan materiala lortzea oso zaila izaten zen, euskaraz idatziriko materiala batipat. Erabili ziren liburuak Isaac Lopez Mendizabalek egini-koak ziren, hau da, *Xabiartxo*, *Umearen laguna* eta *Martin Txilibitu*. Liburu hauez gain *Enciclopedia* liburua erabiltzen omen zuten.

Lehenago aipatu ditugun liburuak, Isaac Lopez Mendizabalek egini-koak alegia, irakurtzen ikasten ari zirenek eta ikasi berria zutenek erabiltzen zituzten batipat. Idazketa eta irakurketa batera irakasten zieten eta horretarako *Umearen laguna* liburuaz baliatzen ziren batez ere. Txikienak berriz, abesti eta jokuak izaten zituzten ikasbide.

Bestalde, erlijioak garrantzi handia zuela esan beharra dago eta horretarako *Kristau Ikasbidea* erabiltzen zuten egun guztian zehar ahaztu gabe.

Ordutegi aldetik gaur egun erabiltzen denaren oso berdintsua zela esan daiteke. Bai arratsalde eta bai goizez gauza berdinak egiten omen zituzten: lehendabizi abestu, gero otoitzak ikasi, ondoren irakurketa-idazketa eta beste zenbait gai, adinaren arabera lantzen zituzten eta bukatzeko berriko abestu egiten omen zuten. Bazkal ondoren haur txikienak “txokolatera” inguruan zegoen aulkian eresi eta lokuluxka bat botatzen omen zuten. Ordubetez, gutxi gora behera, lo egin ondoren, zaharrenek abestu egiten omen zuten txikienak esna zitezen.

Administrazio aldetik, Antonio M.^a Labayenen ardurapean zegoela esan dezakegu. Tolosako talde batek hileroko kuota bat ordaintzen zuen eta Antonio M.^a Labayenen aginduz Xebe Peña etxez etxe ibiltzen zen kuota kobratzen. Bakoitzak ahal zuena ordaintzen zuen bere borondatez. Argi eta garbi ikusten da tolosar talde honek euskararekiko zaletasuna eta aurrera ateratzeko gogoz jokatzeko zuela. Azkeneko juntako presidentea Antonio M.^a Labayen izan zen eta idazkaria Elosegia.

2. MACAPILAC MILITARRA ETA IKASTOLAREN BERRIREKITZEA (1929-1936)

Primo de Rivera garaian, Madrildik Tolosara Macapilac gobernuko ordezkari bezala bidali zuten. Gorritiko plazako ikastola parean zegoen Hostal Ereñaga omen zuen ostatur.

Bere iritziz, ikastolan politika egiten zen eta gainera, parean lo egiten zuela eta, goizero haurren zaratekin (berak zionez abestu beharrean uau-

uau egiten zuten) ezinezkoa zitzaion lo egitea. Bi arrazoi hauengatik itxi arazi zuen ikastola. Noski, Madrildik ere ez zuten begi onez ikusten ikastola.

Itxi arazi bezain laister, Antonio M.^a Labayen, Isaac Lopez Mendizabal, Patrizio Orkaiztegi eta Azkue jauna haserre bizian berarengana hitzegera joan ziren. Azkenik, berriro irekitzea lortu zuten.

Berrirekitze hau nolatan lortu zen jakin nahian, bi bertsio ezberdin aurkitu ditugu:

1.- M.^a Teresa de Silva, eskolen arduraduna, laguna zuten eta laguntza eske joan zitzaizkion. Nahiz eta Valladolidekoa izan ikastola bere ardurapean hartzeko eskeini zuen bere burua. Honela, ikastola berrireki ahal izan zen eta Macapilac era honetara “konforme” geratu zen.

2.- J. Antonio Irazusta, “Xuxupe”, Errepublikara garaian diputadu izandakoa eta Joxe Eizagirre E.A.J.ko senadorea afaltzera Zeru Aundira joaten ziren. Hemen, Macapilac ezagutu, lagun egin eta hoiengan bitartez lortu zen ikastola berrirekitzea.

Gure ustez, biak izan zuten ikastola berrirekitzeko orduan zerikusia, ez dago zihurtatzerik batengatik edo bestengatik izan zenik.

Azkenik, Macapilac-en gainetik eta Madrilgo gobernuaren gainetik ikastola eta euskara irabazle geratu ziren.

2.1. Gorritiko Ikastolaren berrirekitzea

Azkenik, esan dugun bezala, ikastola berrirekitzea lortu zen eta berriro urrats berdinak jarraitu zituen.

Beraz, bigarrez aldiko ikastola hau, gerra zibila iritxi arte egon zen zabalik.

2.2. Laskoraingo Ikastola

Gorritiko ikastolan haur guztientzat tokirik ez zegoenez, Laskorain kalean beste gela bat ireki zen. Gutxi gora behera 1930-1931 garren urtean ireki eta gerra zibila etorri zenean itxi zen.

Laskorain kalean Iztuetatarrak karrozeria zuten etxe berean lehenengo bizitzan zegoen ikastola.

Gela bakarra zen, luzexka eta handia. Ikasgelaren ondoan, gela txiki bat zegoen eta ikasgela eta gela txiki honen arteko paretean lehiatila txiki bat, bertatik haurrei zinea botatzeko.

Haseran esan dugun bezala, gela bakarra zegoen baina denboraldi batera, goiko etxebizitzan beste gela bat alokatu beharra izan zuten bertan zaharrenei klaseak emateko (batxilerrerako prestatu behar zutenei hain zuzen) hilero hamabost pezeta ordainduz.

Laskoraingo ikastolan lau andereño ibili ziren: Ixidora Mokora, Inaxi Munita, Miren Brau eta Modesta Seguroa, nahiz eta buru M.^a Dolores Arbilla izan hemen ere. Hauetatik aparta ere, beste hiru andereño ere ibili omen ziren baino asignatura jakin bat irakasteko: Maria Rezola, Teresa Saizar eta Pilartxo Sansinenea.

Ixidora Mokoroa tolosarra da eta gaur egun Parisen bizi da. Mokoroa-tarrek garai hartan liburu denda txiki bat zuten eta bertan ikastolarako behar zen materiala saltzen zuten.

Inaxi Munita Tolosako andereño izan ondoren monja sartu eta denbora asko pasa zuen Txinan misiolari bezala. Zenbait artikulua ere idatzi omen zituen.

Miren Brau tolosarra dugu eta andereño izan aurretik ikasle izan zen ikastolan, nahiz eta titulorik ez izan. Gaur egun Madrilen bizi da.

Modesta Seguroa tolosarra da eta gaur egun Oiartzungo konbentu batetan bizi da.

Ikaslegoari buruz datu zehatzik nahiz ez izan Gorritiko kopuruaren araberako 40-50 bat izango zirela pentsatzen dugu. Adin aldetik, hemen ere, 3tik 9 bitartekoak ziren bai neskak eta bai mutilak.

Ikastola honetara etortzen ziren haurrak nahiz eta Tolosan bertakoak izan, inguruetakoa auzokoak ziren gehien bat, hau da, Txaramakoak eta Amarotzekoak.

Amarotzeko papelerako nagusiak, Luis Sesek, autobus bat prestatu zuen inguru haietako haurrak ikastolara eramateko.

Material aldetik, Gorritiko ikastolan izendatutako berbera da. Baina handienak *Lutelestia* ere erabiltzen zuten. Erdaraz ikasteko, itzulpen asko egiten omen zituzten, *Xabierto* erdarara itzuli batipat.

3. GERRA AURREKO IKASTOLAREN AMAIERA

1936. urtean gerra zibilaren ondorioz, ikastola itxi egin zen. Gerra honen ondorioz diktadura ezarri zenez, euskara eta berarekin erlaziozaturik zegoen guzia zanpatua izan zen.

Bestalde, aurkitzen zituzten euskal papela eta liburu guztiak erre eta txikitzen zituzten. Beraz, horregaitik, lan hau egiterakoan, ezer gutxi aurkitu dugu idatzirik.

Baina egoera larri hauek jasan arren, 1967. urtean oraindik diktaduraren menpean, ixilean ikastola ireki zen, hain zuzen gaur egungo Laskorain Ikastola.